

# GUGGENHEIM BILBAO


## PRENTSA OHARRA

### 1.170.669 pertsonak bisitatu dute Guggenheim Bilbao Museoa 2019an


2019. urtea oso positiboa izan da Guggenheim Bilbao Museoarentzat, publikoaren aldetik jasotako babesari esker. 1.170.669 bisitari hartu ditu, Museoaren historiako laugarren zifrarik onena, eta kopuru hori erakundeak lurraldearen bultzatzaile gisa duen gaitasunaren froga da, beste behin ere.

Bisitarien jatorri geografikoari erreparatuz gero, orain arte bezala, atzerritarrak izan dira ehuneko handi batean (guztirako kopuruaren % 69); gehienbat Frantziatik (% 17), Britainia Handitik (% 7), Alemaniatik (% 7), Ameriketako Estatu Batuetatik (% 7) eta Italiatik (%5) etorritakoak. Euskal Herritik etorritako bisitariak % 9 izan dira, eta Estatuko gainontzeko tokietatik etorritakoak, aldiz, % 22; aurreko urteetan bezala, aipatzekoa da Kataluniatik eta Madrildik jasotako bisitarien kopurua (guztirako kopuruaren % 5 eta % 4, hurrenez hurren).

#### Bisitarien banaketa jatorri geografikoaren arabera



#### Atzerriko bisitarien banaketa jatorri geografikoaren arabera



# GUGGENHEIM BILBAO

2019an Museoak bisitariarentzako izan duen erakargarritasun nagusia urtean zehar izandako asmo handiko **arte-programazio** zabala izan da. *Atzera begira*. *Giorgio Morandi eta antzinako maisuak* erakusketa 702.010 bisitarik ikusi zuten apiriletik urrira bitartean, *Jenny Holzer*. *Zera deskribaezina* 655.713 pertsonak gozatu zuten martxotik irailera, *Lucio Fontana*. *Atarian* 552.213 lagunek ikusi zuten maiatzetik irailera bitartean eta *Gerhard Richter: Itsas paisaia* erakusketak 445.105 bisitari izan zituen maiatza eta iraila hasiera artean. Halaber, azpimarratzekoa da joan den urrian ireki eta 2020an jarraituko duten erakusketen erakarpen-indarra ere: urte bukaerara arte, 263.381 pertsona ekarri ditu *Thomas Struth* erakusketak, 210.351 *Soto*. *Laugarren dimentsioa* erakusketak, eta 186.884 *Kunsthalle Bremen*en bildumako maisulanak: *Delacroix*etik *Beckmann*era erakusketak; kopuru handiak epealdi horretarako.

Esparru digitalari dagokionez, **guggenheim-bilbao.eus** webguneak 2.333.206 bisitaldi eta bistaratutako 7.592.391 orrialde erregistratu zituen guztira 2019an, iazko datuen ildo beretik; era berean, Museoak sare sozialetan dituen komunitateak eta eraginak gora egiten jarraitzen dute: 542.000 jarraitzaile ditugu Instagramen, 370.000 Twitterren eta 318.000 Facebooken; 1.230.000 lagun guztira.

**Hezkuntza-programei** dagokienez, 2019an 105.790 pertsonak hartu dute parte Museoak eskaintzen dituen aurrez aurreko zein online jardueretan; 917.987 pertsona izan dira arte-programazioaren osagarri diren espazio didaktikoak erabili dituztenak. Urteko berrikuntzen artean, nabarmentzekoak dira Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei Museoaren Bildumako maisulanak eta eraikinaren arkitektura gerturatzeko martxan jarri diren Bisitaldi birtualak (*Skype in the Classroom* tresnaren bidez egiten dira), eta baita egonaldi artistikoen programa berria ere; azken horren helburua hezkuntza-arloko jarduerak garatzerakoan pentsamendu dibergentearen eta sorkuntza-prozesuaren balioa indartzea da. Beste datu azpimarragarri bat New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-en EAEko ikasle eta artistentzako abian den beka-programaren finkapena da; dagoeneko 30 lagunek eskuratu dute. Azkenik, lankidetzak berriak eragiten jarraitzen duen TopARTE programa nabarmendu behar da, publikoaren artean arrakasta handia baitu. Programa horren bitartez, Museoko espazioak zabaltzen zaizkie EAEko kultura-arloko eragile eta erakundeei, diziplina desberdinetako (musika, zinema, bideoa, dantza, performancea, antzerkia eta gastronomia) programazio aberatsa eskaintzeko.

## Komunitate zabal bat

Museoko **banakako kideei** dagokionez, 57.530 dira Museoak artearen eta kulturaren inguruan sortutako Community komunitatea osatzen dutenak. Kolektiboen arabera banatuz gero, 20.197 dira **Museoaren Lagunak**, Museoak sortu zenetik izandako kopururik handiena; zenbateko horrek agerian uzten du Museoak gertuko ingurunean daukan gizarte-babes zabala. Museoarekin harremanetan egoteko doako modalitateari dagozkion Jarraitzaileak, aldiz, 35.905 dira. Eta langabezia daudenei Museorako doako sarbidea eskaintzen dien **Erdu programak** 1.428 onuradun izan ditu.

Guggenheim Bilbao Museoak 2019an izan duen **enpresa-partaidetzari** dagokionez, 125 izan dira Kide Korporatiboak. Erakundearen finantzabidearen funtsezko oinarri diren kideok ere badira Communityren parte.

# GUGGENHEIM BILBAO

## Ekonomiaren higiarazlea

Azkenik, hona hemen **2019an** Guggenheim Bilbao Museoaren funtzionamenduak bere inguruan izan duen **eragin ekonomikoari** buruzko emaitzak:

- Museoaren jarduerari esker EAEn **sortutako eskaria** 500,8 milioi eurokoa izan da guztira.
- Barne Produktu Gordinari egindako ekarpena 438,5 milioi eurokoa izan da.
- Kopuru horiei esker, Euskal **Ogasun Publikoek** 67,9 milioi euroko **diru-sarrera gehigarria** izan dute.
- Museoaren jarduerak 9.387 **enplegu** mantentzen lagundu du.

Beste urte batez, Europako kultura-erakundeen artean buru izaten jarraitzen du Museoak **autofinantziazio-mailan**. 2019an % 70ekoa izan da datu hori, gutxi gorabehera.

Bilbon, 2020ko urtarrilaren 2an